

Gasteizko hegoaldeko auzo-elkarteek eta kontzejuek ingurunea eta auzokideak errespetatuko dituen mugikortasun jasangarriko eredu bat eskatzen dugu

Hiriaren hegoaldeko bizilagunok adierazten dugu, alde batetik, kezkatuta gaudela inguru honetako trafikoa handitu egin delako eta, bestetik, Gasteizko Udalak hiriaren hegoaldeko mugikortasunaren inguruan aurreikusi dituen jarduketek ezinegona sortu dutela inguruan bizi garenon artean.

Izan ere, jarduketa horien helburua ez da trafiko-bolumena eta autoek hartzen duten espazio publikoa murriztea, baizik eta trafikoa arintzea eta inguruan ibilgailuz mugitzeko behar den denbora murriztea.

Horiek horrela, hegoaldeko auzo-elkarte eta kontzejuek adierazpen bat adostu dugu, non salatzen baitugu autoen zirkulazioa gero eta gehiago kaltetzen ari dela hemen bizi garen pertsonon eguneroko bizitza, eta uste dugu Gasteizko Udalak ez ikusiarena egin duela trafikoak inguru honetan bizi garenon osasunean (kutsadura akustikoa eta ingurumenekoa) eta segurtasunean dituen ondorioei dagokienez; alegia, ez duela hemen bizi garenongan pentsatzen.

Etorkizuneko proiektuak

Lau dira Arabako hiriburuaren hegoaldean etorkizunari begira planteatzen diren kezka nagusiak:

- a) Trafiko astuna eta arriskutsua areagotzea, udal-zaborteia handitzearen ondorioz.
- b) Inguruan dabilzan hiriarteko autobusen trafiko-dentsitatea, eta hiri barruko ibilbideei eta geralekuei eusteak eragiten duen kutsadura akustikoa eta ingurumen-kutsadura.
- c) Iturritxu-Zumabide-Maite Zuñiga ardatzeko erreiak bikoiztea, trafikoa areagotuko duelako eta horrek, era berean, ondorioak izango dituelako; horrez gain, erreiak gehitu ezin diren lekuetan izango diren botila-lepo ugarietan arazoak sor daitezkeelako, eta Hezkuntza eta Kirol Unibertsitatea dagoen biribilgune arriskutsuan istripuak areagotuko direlako, ziur.
- d) Hegoaldeko ingurabide batek gasteiztar askok gozaten dugun hiriaren ondasun ekologiko bati egingo liokeen kalte konponezina.

Jasangarritasuna

Elkarte eta kontzejuei kezka eragiten digu abian jarriko diren eta aztertzen ari diren neurriek mugikortasun jasangarriari, ingurumenean, hiri-paisaian eta inguruan bizi garen pertsonon bizitzan eragin dezaketen kalte larria.

Horregatik, azpimarratu nahi dugu proposatzen den irtenbide orok bat etorri behar duela 2030erako Garapen Jasangarriko Helburuekin eta Gasteizko 2030erako Hiri Agendarekin, zeinak bere helburu eta jarduketan artean jasotzen baititu "Mugikortasun jasangarria" eta "Hiri eta komunitate jasangarriak".

Garraio publikoa

Ilido horri jarraituz, auzotarren eta herrien ordezkariok udalari proposatzen diogu ez dezala gehiago erraztu auto partikularraren erabilera, eta atzera bueltarik izango ez lukeen hegoaldeko ingurabidea eraiki edo galtzadetan behin-behineko erreiak gehitu eta autoaren erabilera erakargarriagoa egin beharrean, baliabide horiek mugikortasun-zerbitzu publikoak hobetzeko erabil ditzala.

Hegoaldeko auzo eta herrietan lineak eta maiztasunak sortzea eta areagotzea proposatzen dugu, industrialdeetako garraio publikoaren sarea hobetzea, hiriarteko garraioaren ibilbidea eta geralekuak kentzea eta bizikletetarako eta MPIetarako azpiegitura egokia sortzea.

Herritarren parte-hartzea

Bestalde, auzo elkarte eta kontzeju sinatzaileok salatu nahi dugu hartzen diren neurriei eta aztertzen ari diren eta abian jar daitezkeen beste jarduera batzuei buruz jasotzen dugun informazioa ia soilik prentsaren bidez jasotzen dugula eta, beste batzuetan, inplikaturako alderdi batzuei bakarrik ematen zaiela informazioa.

Horregatik, jarduketei buruzko informazioa ematean, gardentasuna eta puntualtasuna eskatzen ditugu, espekulazioak alde batera uzteko eta gure iritzia eta balorazioa behar bezala informatuta eman ahal izateko. Garrantzi gutxiagokoa ez bada ere, azkenik, eskatzen dugu hiriaren hegoaldeko mugikortasunari buruzko azterlan eta erabaki guztietan herritarrek parte hartzeko benetako prozesuak berma daitezela.

“Hegoa bizirik/ Por un sur vivible”